



Prensa oharra

**EROSKIren asmoa da komenentziatzko hamar bat denda irekitzea
aurten gasolindegietan**

**EROSKI-K "RAPID" IZENEKO SUPERMERKATU
FRANKIZIATUA INAUGURATU DU BIZKAIAN,
MALLABIKO AVIA GASOLINDEGIAN**

- Komenentziako supermerkatuak dira, zeinetan kontsumitzaileak ordutegi zabal bat baitu urteko egun guztietan
- Aurten, EROSKIren asmoa da komenentziako hamar bat denda irekitzea, eta formatu berria beste metropoli eremu batzuetara eta kostako eremu turistikoetara hedatzea

Mallabia (Bizkaia), 2021eko ekainaren 3a.- [EROSKI](#)k supermerkatu frankiziatu berria ireki du gaur RAPID izenarekin Arrangizgana errepideko [AVIA](#) zerbitzugunean, Mallabiko Goitondo industrialdean. EROSKIren formatu komertzialetan berriena da RAPID, eta oso eredu komertzial lehiakorra da. Denda txiki batzuk dira, oso biztanleria dentsitate handia duten eremu urbano eta turistikoetan kokatuak.

Mallabiko AVIA zerbitzuguneko dendak 40 metro koadrotik gora ditu, eta kontsumitzaileek 700 erreferentziatik gora dituzte, baita labe propioa ere ogi eta opil egin berriekin. Horrez gain, janaritan, edaritan, drogeriatan eta lurrinetan, ekoizle liderren markak ez ezik EROSKIren marka propioak ditu. AVIA gasolindegia urteko 365 egunetan irekitzen du, astelehenetik larunbatera 07:00-22:00 bitartean eta igande eta jaiegunetan 08:00-22:00 bitartean.

[AVIA Club](#)eko bazkideek klubeko abantailak izango dituzte Mallabian erostean; hala, %2ko deskontua izango dute ibilgailua hornitzean eta %5ekoa Rapid dendan, zeina hurrengo aldiko erosketan edo horniketan deskontatuko den.

EROSKI eta AVIAk beren hitzarmena sendotu dute

EROSKI eta AVIAk sendotu egin dute hitzarmena, eta EROSKI RAPID izeneko frankizia supermerkatuak hedatzen jarraituko dute AVIA petriolio operadorearen zerbitzuguneetan, hitzarmen hau martxan jarri zenetik balantzea aski positiboa izan baita. Bi enpresak lankidetzan hasi zirenetik, 13 denda ireki dituzte AVIAren zerbitzuguneetan herrialde osoan, eta 2021ean, asmoa da beste hamar bat gasolindegi berri irekitzea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Hitzarmen honek EROSKI RAPID komenentziako denden eredua hedatzen lagunduko du. Dagoeneko, 28 denda dira, eta asmoa du 2021ean beste hamar bat denda gehiago irekitzeko. Hala, apustu egiten jarraitu nahi du komenentziaren eta erosketan laster, erraz eta bultzadazkoaren arloko merkatu aukera honen alde.

Pandemia garaian, iragarpenak beteak

Zerbitzuguneetako EROSKI RAPID dendek salmentak esperotakoa bete du pandemiaren garaian, zerbitzuguneetako jende kopurua apaldu denean. *"Lehenik eta behin, pandemiaren hastapenetik, gure lehentasuna izan da bezeroei eta lantaldeei ahal zen neurrian ingurune seguru bat ziurtatzea. Horretaz gainera, gure zerbitzua hobetu dugu, eta egokitu egin gara inoiz baino gehiago gure bezeroen beharretara. Hala, tokiko produktuaren hornidura handitu dugu; eta eskari handieneko produktuen hornidura bermatu dugu, hau da, zizka-mizkena, edari hotzena eta oinarrizko elikagai produktuena (ogia eta esnea), baita bultzadazko beste produktu batzuen ere"*, azaldu du EROSKIren frankizia arloko zuzendariak, Enrique Martinezek.

"Sektorean joera bat ikusten da, gasolindegia "askotariko zerbitzuen" gune bihurtzen ari dira: ez dira bakarrik ibilgailua erregaiz hornitzeko, baita bezeroari etxera itzultzen denean edo bidaiari doanean behar duen guztia eskaintzeko ere, eta bai AVIAk eta bai EROSKI jakin dute bezeroari zerbitzu hori ematen. Pandemiak prozesua bizkortu du", esan du AVIAren Zerbitzuguneen Negozio arloko zuzendariak, Mikel Arrienek.

AVIAri buruz

AVIA da Espainian petrolio operadore nagusietako bat: ia 200 zerbitzugune ditu, eta gasolioa banatzeko 35 biltegiko sarea, gasolioaren azken kontsumitzailea hornitzen duena, hala nola nekazaritzarako, automoziorako, industriarako eta berokuntzarako, ia-ia geografia osoa hornitzen duelarik. Horrez gain, AVIAk lubrikatzaileak saltzen ditu automoziorako eta industriarako, eta beste energia mota batzuk, hala nola biomasa eta bioerregaiak (PGL petrolio gas likidotua eta GGN garraiorako gas naturala). AVIA ez dago soilik Espainiako merkatuan; Europako marka ere bada joan deneko 80 urtean, eta 3.000 zerbitzugune bultzatzen ditu hamabost herrialdetan, denak ere operadore independenteak.

EROSKIri buruz

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.624 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash & carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai eta bere *online* supermerkatua. Era berean, sei milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile baino gehiago. EROSKIren frankiziek 40 urtetik gorako eskarmentua dute, eta 540 supermerkatu baino gehiago dira frankizia hartzaileak. 2021ean, asmoa da beste 70 supermerkatu irekitzea dela zerbitzuguneetan eta dela gainerako gunen urbano eta turistikoetan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)